

IRURI

22 urte

"Igal asko identifikatzen dugu sortzailea sormena ofiziotzat duten pertsonekin: abeslari bat, idazle bat, marrazkilari bat... Baina azkenean sormena hori baino askoz gehiago da"

UNAI

22 urte

"Iruditzen zait orokorrean sistemak ez gaituela nahi sortzaile. Ez gaitu nahi pentsatzen, otzan nahi gaitu, sumiso nahi gaitu, modu batean. Eta uste dut sorkuntzak justu kontrakoa egiten duela"

LIBE

21 urte

"Uste dut banako sormena ezin dela existitu. Azkenean, beti estimulu baten erantzun moduan sortzen dira gauzak. Orduan hartu-eman horren emaitza dira sortutako ideia denak, kanta denak, edo dena delakoa"

SORMENA

AIMAR

19 urte

"Guk Tuteran Union Tuteran futbol talde herrikoi, feminista, antikapitalista, antifaxista eta euskalduna sortu dugu. Eta niri hori kriston sortuena eta kriston sorkuntza iruditzen zait"

NETSANET

18 urte

"Nik pentsatzen dut norbera gisa badugula denok energia bat gure baitan, egiteko manera bat, eta horrek besteekiko eragin bat duela. Eta beraz, besteekiko ere sortzen dugula sentimendu bat, izateko giro bat, eta abar"



GERUZAK

Sormen hitzak ze irudi
iradokitzen dizu? Marraztu.

Sormen hitza
esan eta zer
da lehendabizi
datorkizuna burura?

Zer
ulertzen duzu
sormentzat?

Sortzaileak
batzuk
bakarrik al
dira? Ala
guztiok?

Pertsona
batzuk beste
batzuk baino
sortzaileagoak
al dira?

Zer da
SORMENA
eta
SORTZAILE IZATEA
zuretzat?

SORMENA
erlazionatzen dut...


Sormena kultur eta arte diziplinetara mugatzen
dugu maiz. Zuk beste esparruren batekin lotzen
al duzu? Zeinekin?

Ba al duzu zuretzat
erreferentziala den
"sortzailerik"?

Zergatik da zuretzat
erreferentziala?



NOIZ	NON	ZERTAN	NOREKIN	ZERGATIK



Eta ez-sortzaile noiz, non, norekin eta zertan sentitzen zara? Zergatik?

NOIZ	NON	NOREKIN	ZERTAN	ZERGATIK

Eta zerk oztopatzen duela uste duzu orduan zure sormena?

Bizitzako garai batzuetan sortzaileagoak al gara?

Zu gazteagoa zinenean sortzaileagoa al zinen? Ala gaur egun sortzaileago zara?

Etorkizunean zure sormen esparruak areagotu ala estutu egingo zaizkizula pentsatzen duzu?

Zergatik
sortzen
dugu?

Zertarako
sortzen
dugu?

Nola
sortzen
dugu?

Sormena;
ezaugarri,
indar, prozesu,
aberastasun,...
indibiduala ala
kolektiboa dela
uste duzu?

SORMENA
kolektiboa
al da?

Inguru
sortzaile
bateko kide
zarela uste
al duzu?

Banako
sormenik ba
ote?

Saiatzen al zara zu
eta zure ingurua
sortzaileago egiten?

Sormena
kolektiboa
beti?

Zure egunerokoan
kolektibo
sortzaileraren bateko
edo hainbatetako
kide zarela
esango al zenuke?
Adibiderik?

Zuri ere
horrela dela
iruditzen al
zaizu?



“
Askotan, sortzailetzat
hartzen ditugun
indibiduen eta
maskulinitatearen
artean lotura bat
dago. Eta hain
errekonoizituak ez
diren beste sormen
prozesu batzuen, eta
hauek historikoki
feminitatearekin
lotuta egon izanarekin
ere bai. Sortze
prozesu mota eta fase
batzuei garrantzia
gehiago ematen diegu
beste batzuei baino.

Bizi-eredu berri bat sortzeko beharrik sentitu al duzu inoiz?

Saiatu al zara noizbait hori gauzatzen? Edota saiatzeko asmo edo nahirik ba al duzu?

- > NONDIK HASIKO ZINATEKE?
- > ZER SORTZETIK?
- > ETA ZER ALDATZEKO?


Sormena ikus-entzunezkoan laguntasunean oinarritutako lorategi bat aipatzen da; festa herrikoi batzuk; futbol talde herrikoi, feminista, antikapitalista, antifaxista eta euskaldun bat ere bai.

Zer iruditzen zaizkizu harremantzeko eta bizitzeko eredu berri horiek?


Bizi-eredu berriak SORTU al daitezke?

ZUK BIZI-EREDU BERRI BATI EKITEKO ZER IDEIA EDO ASMO, ALEGIA, ZER HAZI EREINGO ZENUKE EDO ZENITUZKE?

Nolakoa litzateke zure bizi-eredu berri-hori?




Gure gizarte
ereduak sormena
indartu ala kamustu
egiten du?



Zer erlazio dute
zure bizitzan
denborak eta
sormenak?

Oro har, zure
hezkuntza,
bizitza eta
lan munduan
sormenerako
hegoak eman ala
moztu egiten
zaizkizula
sentitzen duzu?



Kapitalismoak SORTZAILE nahi al gaitu?

Egungo gure gizarteak
sustatzen duen sormen
eta sortzaile eredua
nolakoa da?

Etengabe berritu
eta sortzaile izateko jasotzen
ditugun mezuen atzean
askeago, zoriontsuago,
berdinzaleago, autonomoago
izateko helburuak
al daude?

Zuri ere
horrela dela
iruditzen al
zaizu?



Etengabe behin
eta berriro
berritu,
originala izan,...
Badago sormenaren
antsietate
ikaragarri bat
gaixotia.

Zuk ere sortzaile,
berritzaile, original
izatearen antsietatea
bizi izan al duzu noizbait
edo bizitzen al duzu?

Zer ematen
dizu zuri
sormenak?

SORMENIK
gabe mundua
aldatzerik bai?

Sormenik gabe
posible al da...

-HARRITZEA?

-GALDERAK EGITEA?

-IMAJINATZEA?

-ALDATU NAHI IZATEA?

-VLERTZEA?

-AUZITAN JARTZEA?

-HAUTATZEA?

-PENTSAMENDU PROPIOA?

-BILATZEA?

-ANIZTASUNA?

-ASKATZEA?

... Sormenik gabe
izaterik ba
al dago?

Etengabe mundua
aldatzen ari
garela iruditzen
al zaizu?

Sormenetik bakarrik al dator
aldaketa? Ala beste gaitasun
edo bulkada batzuetatik ere
bai, adibidez: maitasuna, bizi
gogoia, jakin mina...

Sormenak laguntzen al du bizitza
eta mundua hobetzen? Adibiderik
bururatzen?

-
-
-
-

Gogoan
al duzu zure
inguruan
sormenak
zure ingurua
hobetu zuen
aldi hura?

Zuri zer beste galdera sortzen
dizkizu sormenaren gaiak?

-
-
-
-
-
-
-
-